

Otsailaren 20ko 6/1990 Foru Dekretua, Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak onesten zuen Ondasun Higieziniei buruzko zergaren kudeaketaren gaineko hainbat puntu garatzen dituen.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Dekretu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru dekretuaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

I. KAPITULUA. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUDEAKETA	2
1. artikulua. Ondasun higiezinetak aldaketak	2
2. artikulua. Aitorpenak	2
3. artikulua. Aitorpenak aurkezteko epeak	3
4. artikulua. Aitorpena egiteko obligazioa	3
5. artikulua. Obligazioen ez betetzea	3
6. artikulua. Salbuespenak eta hobariak	3
7. artikulua. Salbuespen eta hobari eskaerak eta eragina	4
8. artikulua. Okerreko ordainketen erreklamazio eta eskaerak	4
9. artikulua. Erroldaren edukia	4
10. artikulua. Zerga zorraren ordainketa	4
II. KAPITULUA. BALIO PONENTZIEN BERRIKUSPENETIK ONDORIOZTATUTAKO KATASTRO BALIOAK	
JAKINARAZTEA SUBJEKTU PASIBOA BERTARATUTA	5
11. artikulua. Balio katastralak interesatua bertaratuta jakinaraztea	5
XEDAPEN GEHIGARRIA	6
AZKEN XEDAPENA	6

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 18. artikulua (uztailaren 10eko Gipuzkoako ALDIZKARIU OFIZIALEAN eta irailaren 7ko E.H.A.A.n) Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren kudeaketa arautzen du eta zamapean dauden ondasunetan izandako aldaketa edo altak, arauz finkatzen diren epeen barne, aitortzeko obligazioa ezartzen die zergapean dauden subjektu pasiboari.

Foru Dekretu honek aipatu epeak finkatzeaz gain, ondasun higiezinaren aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoen izaera zehaztu eta okerreko ordainketen itzulketarako erreklamazio eta eskaerak, salbuespenak eta hobarien gaian erabil daitezkeen prozedura garatzen du.

Hala, uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren azken xedapeneko lehengo atalean aurrikusitakoaren arabera Hazienda Finantza eta Aurrekontu Departamentuko Foru Diputatuaren proposamenaz eta gaurko egunez, 1990eko uztailaren 5ean eginiko Diputatuen Kontseiluan eztabaidatu ondoren.

ZERA ERABAKITZEN DUT

I. kapitulua. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kudeaketa¹

1. artikulua. Ondasun higiezinaren aldaketak.

Ondasun higiezinaren gaineko zergari buruzko, uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 2. ataleko 18. artikuluan aurrikusitakoaren arabera, honako erakoak izango dira ondasun higiezinari dagozkien aldaketak:

a) Aldaketa fisikoak: eraikuntza berri eta zutik dauden zabalpen, birrintze edo suntsiketa osoa edo zati batena. Hala ere ez dira aldaketatzat hartuko egiten diren obralaran edo konponketa-lanak, periodikoak ez izan arren; ez eta hornakuntza ezaugarri dagozkienak ere.

Era berean, aldaketa fisikotzat hartuko da landa-zonaldetako ondasun higiezinaren probetxamendu edo labore motaren aldaketa.

b) Aldaketa ekonomikoak: Ondasun higiezinaren aldaketa fisikorik ez daraman erabilpen edo izaera aldaketa.

c) Aldaketa juridikoa: titulartasunaren eskualdaketa edo Foru Dekretuaren 5. artikuluan xedatzen den edozein eskubideren eraketa, ondasun higiezinaren banaketa edo zatiketa, edota denak biltzea.

2. artikulua. Aitorpenak.

1. Alta aitorpenak, eraikuntza, berriak direnean, edo Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatzen den edozein ondasun higiezinaren aldaketa fisikoa, ekonomikoa edo juridikoa dela-eta, egin beharreko gainontzeko aitorpenak Hazienda, Finantza eta Aurrekontu Departamentuaren Foru Arauen bidez

¹ Foru dekretu honen artikulua bi kapitulutan banatu ditu ekainaren 15eko 16/2010 FORU DEKRETUAREN 2. artikuluko bi apartatuak. I. kapitulua 1etik 10era bitarteko artikulua hartzen ditu. Aipatutako foru dekretuak honako dekretuak aldatzen ditu: Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretua, eta otsailaren 20ko 6/1990 Foru Dekretua, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araua garatzekoak. Foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2010/06/22ko GAO).

onartutako inprimaki eredutan egin beharko dira eta aipatu ondasun edo eskubideen titularrak egin beharko du.

2..Aitorpenak, alegia, ondasuna kokatzen den Udalerriaren Udalean aurkeztu beharko dira eta honek, bere zerbitzu teknikoek luzaturiko txostenekin eta katastroa dela-eta, behar bezala kodeztaturik, Haziendako Zuzendaritza Nagusiaren Zerga Lokalen Zerbitzura bidaliko ditu.

3. artikulua. Aitorpenak aurkezteko epeak.

Aurreko artikuluan aipatzen diren zerga-aitorpenen aurkezpenerako epeak segidako hauek dira:

a) Eraikuntza berrien alta edo ondasun higiezinetakoa aldaketa fisikoen aitorpenak, obralanak amaitu eta ondorengo egunetik kontatzen hasirik bi hilabetetako epean aurkeztu beharko dira.

b) Aldaketa ekonomikoak direla-eta egin behar den aitorpenerako, bi hilabete, dagokion erabilpena edo izaeraren aldaketarako eman den administrazio-baimena eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasirik.

c) Aldaketa juridikoetarako, bi hilabete, eskritura sinatu edo, hala balegokio, aipatu aldaketa arautzen duen dokumentua sinatu zen hurrengo egunetik kontatzen hasirik.

4. artikulua. Aitorpena egiteko obligazioa.

1. Foru Dekretu honetako 2. artikuluan aurrikusiriko aitorpenak egiteko obligazioa izango dute ondasun higiezinaren gaineko zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araueko 5. artikuluan aipatzen diren ondasun eskubideen titularrak.

2. Aurreko atalean xedatutakoaren kaltetan gabe aipatu 12/1989 Foru Araueko 5. artikuluan adierazten den edozein eskubideren titulartasun eskualdaketa egin duen pertsonak edo Erakundeak ere egin dezake.

5. artikulua. Obligazioen ez betetzea.²

Aurreko artikuluetan aipatu diren aitorpenak ez aurkeztea edo aitorpenak epe barruan ez aurkeztea zerga alorreko arauhaustetzat joko da, eta martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, xedatutako zehapena ezarriko zaio.

6. artikulua. Salbuespenak eta hobariak.³

Ondasun higiezinak zein udalerritan dauden kokatuta bertako udalari dagokio ematea edo ez ematea 12/1989 Foru Arauaren 4. artikuluko 2. eta 3. apartatuetakoa salbuespenak eta 15. artikuluko hobariak. Eskaera aldez aurretik

² Artikulu hau 2016ko irailaren 13ko 23/2016 FORU DEKRETUaren 1. artikulua bat apartatuak aldatu du. Aipatutako Foru Dekretuak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko 6/1990 eta 6/1999 Foru Dekretuak aldatzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.

³ Artikulu hau 2016ko irailaren 13ko 23/2016 FORU DEKRETUaren 1. artikulua bi apartatuak aldatu du. Aipatutako Foru Dekretuak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko 6/1990 eta 6/1999 Foru Dekretuak aldatzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.

aurkeztu beharko da, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onartutako ereduan.

Salbuespena edo hobaria emateko eskaera behin aurkeztuta, udalak erabaki proposamenaren ziurtapena bidaliko dio Ogasun eta Finantza Departamentuari, aldez aurreko txosten teknikoa prestatu dezan. Udalak, txosten teknikoa aintzat hartuta, bere erabaki proposamena aldatzen badu, erabaki berriaren kopia ziurtatua bidali behar dio Ogasun Zuzendaritza Nagusiari, horren berri har dezan.

7. artikulua. Salbuespen eta hobari eskaerak eta eragina.

1. Hobari eskaerak, hots:

a) 12/1989 Foru Araueko 15 artikuluan aurrikusten den kasuan, obralana hasi eta hurrengo egunetik kontatzen hasirik bi hilabetetako epean aurkeztu beharko dira.

b) Babespen ofizialeko etxebizitzak direnean, obralanak amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasirik bi hilabetetako epean aurkeztu beharko dira.

2. Nolanahi ere, ez da inoiz hobari bat baino gehiago izango ezarraldi bakoitzean.

3. Izaten diren salbuespen eta hobariak eskaera egin eta hurrengo ezarraldian jarriko dira indarrean.

8. artikulua. Okerreko ordainketen erreklamazio eta eskaerak.

Okerreko ordainketen erreklamazio eta eskaerak bakoitzari dagokion Udalean aurkeztu behar dira, Hazienda, Finantza eta Aurrekontu Departamentuaren Foru Arauak onartzen duen inprimaki ereduan.

9. artikulua. Erroldaren edukia.⁴

1. Udalerrri bakoitzean zergapetutako ondasun higiezinaren zentsuek osatuko dute Zergaren Errolda, lurzoru landatarrak eta hiritarrak bereizita. Bertan, ondasun higiezinak jasoko dira, behar bezala identifikatuta, subjektu pasibo fiskalekin eta katastroko balioekin batera. Azken urte naturalean ondasunek izandako aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoak jaso behar ditu Erroldak.

2. Udal Zergen Zerbitzuak formalizatu behar du zergaren urteko errolda, eta horretarako, zerbitzuburuak hura onartzeko dilijentzia egin beharko du. Ordainagiriak kobratzeko epea hasi aurretik bidaliko zaie interesatuta dauden udalei.

10. artikulua. Zerga zorraren ordainketa.⁵

⁴ Artikulu hau ekainaren 23ko 21/2009 FORU DEKRETUaren 1 artikulua aldatu du. Aipatutako foru dekretuak otsailaren 20ko 6/1990 Foru Dekretua, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kudeaketaren zenbait alderdi garatzen dituena, eta azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretua, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituena, aldatzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2009/07/02ko GAO).

⁵ 10. artikulua hau abenduaren 27ko 98/2000 Foru Dekretuaren 1. artikulua gehitzen du. Dekretu honek, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Ekonomi Jarduaren gaineko Zerga ordaintzeko epe berriak finkatzen ditu borondatezko epealdian egiten den zergabilketari dagokionez. 2001eko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean. Alabaina, borondatez

1. Zergaren kuotak ordainagiri bidez bilduko dira. Izaera orokorrean, zerga zorra borondatez ordaintzeko epea maiatzaren 15etik ekainaren 30era bitartekoa izango da eta, azken egun hori jaieguna bada, hurrengo lehen lanegunean amaituko da, beti ere alta berrien ondorioz likidatzen diren kuoten kaltetan gabe.

Bilketa horren ondorioetarako, Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamenduak aldizkako mugaeguna duten eta jakinarazpen kolektibokoak diren zorren bilketari buruz ezarritakoa aplikatuko da.

2. Udalek esku izango dute aurreko apartatuan izaera orokorrean ezarri den borondatez ordaintzeko epea beren ordenantza fiskaletan aldatzeko. Epe hori ezin izango da hasi Erroldaren jendaurreko erakustaldia amaitu baino lehen, eta bere egun kopurua ez da inoiz izaera orokorrean adierazitako epearena baino txikiagoa.

3. Era berean, udalek beren ordenantza fiskaletan erabaki ahal izango dute zerga zorraren ordainketa inolako interes eta errekaririk gabe zatikatu ahal izatea.

4. Aurreko apartatueta xedatutakoa xedatuta ere, gertatzen bada udalek Foru Aldundiaren eskutik utzi dutela, bidezko Hitzarmenaren bidez, zergaren kudeaketa, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak bakarrik aldatu ahal izango du borondatez ordaintzeko epe orokorra, beti ere aurreko 2. apartatuan ezarritako muga berberekin.

Orobat, kasu horietan Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak bakarrik baimendu ahal izango du zorra zatika ordaintzea, aurreko 3. apartatuan aipatu dena.

II. kapituluak. Balio ponentzien berrikuspenetik ondorioztatutako katastro balioak jakinaraztea subjektu pasiboa bertaratuta.⁶

11. artikulua. Balio katastralak interesatua bertaratuta jakinaraztea.⁷

1. Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoak, 11.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, Foru Aldundiak onartutako balio ponentziak jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan, haietatik ondorioztatutako balio katastralak subjektu pasiboei jakinarazi behar zaizkie behar bezala arrazoituta.

ordaintzeko epeak udalen nahiz Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuaren aldetik aldatzeko ahalmenak 2002ko urtarilaren 1etik aurrera bakarrik izango du eragina.

⁶ Foru dekretu honen artikulua bi kapituluatan banatu ditu ekainaren 15eko 16/2010 FORU DEKRETUAren 2. artikuluko bi apartatuak. II. kapituluak 11. artikulua hartzen du. Aipatutako foru dekretuak honako dekretuak aldatzen ditu: Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretua, eta otsailaren 20ko 6/1990 Foru Dekretua, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araua garatzekoak. Foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2010/06/22ko GAO).

⁷ Artikulu hau ekainaren 15eko 16/2010 FORU DEKRETUAren 2. artikuluko bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak honako dekretuak aldatzen ditu: Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretua, eta otsailaren 20ko 6/1990 Foru Dekretua, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araua garatzekoak. Foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2010/06/22ko GAO).

Jakinarazpena egin ahal izateko, subjektu pasiboa edo berariaz baimendutako pertsona zuzenean bertaratu ahal izango da tokian tokiko udaletxeak propio eratutako bulego publikoetara edo Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko herriarren arretarako bulegoetara.

2. Jakinarazpena interesatua bertaratuta egiteko epea hilabetekoa izango da, dagokion iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Epearen lehen hiru egunetan iragarkiak jarriko dira zabalkunde gehien duten egunkarietan, bertaratzeko epearen berri emateko. Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean ere emango da epearen berri, eta jarraitu beharreko prozedura era adieraziko da bertan.

3. Jakinarazpena eramateko epea amaitzen bada eta interesatua edo baimendutako pertsona hura jaso gabe badago, balio katastrala jakinarazitzat joko da ondorio guztietarako.

4. Artikulu honetan jasotako prozedurari jarraiki jakinarazitako balio katastralen aurka errekurso edo erreklamazioak jartzeko epea aurreko 2. apartatuan ezarritako epea amaitu eta biharamunetik aurrera zenbatuko da beti. Dena den, horrek ez du eragotziko errekursoa edo erreklamazioa lehenago aurkeztu ahal izatea jakinarazpena subjektu pasiboa edo beronek baimendutako pertsona bertaratuta egiten bada.

5. Aurreko apartatueta aurreikusitako jakinarazpen prozeduraren kalterik gabe, hori egiten den une berean Gipuzkoako Foru Aldundiak postaz jakinarazi ahal izango dizkie subjektu pasiboari balio katastralak eta haien zergatiak, xede informatibo hutsez.

Orobat, interesatuek Internet bidez eskuratu ahal izango dute balio katastralei buruzko informazioa, Ogasun eta Finantza Departamentuaren webguneko zerga informazioa atalean sartuta.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru Dekretu hau aplikatu-ondoren sor daitekeen edozein gorabehera, Haziendako Zuzendaritza Nagusiak konponduko du, bere eskumenen baitan.

AZKEN XEDAPENA

Lehena: Baimena ematen zaio Hazienda, Finantza eta Aurrekontu Departamentuko Foru Diputatuari Foru Dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren arauak luzatzeko.

Bigarrena: Foru Dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Abenduaren 27ko 98/2000 Foru Dekretua, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Ekonomi Jardueren gaineko Zerga ordaintzeko epe berriak finkatzen dituen borondatezko epealdian egiten den zergabilketari dagokionez. (2000-12-29ko GAO)*
 - 1. artikulua 10. artikulua gehitzen dio.
- *Ekainaren 23ko 21/2009 FORU DEKRETUA, otsailaren 20ko 6/1990 Foru Dekretua Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kudeaketaren zenbait alderdi garatzen dituen eta azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretua, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait Alderdi arautzen dituen, aldatzekoa (2009/07/2ko GAO).*
 - 1. artikulua 9. artikulua aldatu du.
- *16/2010 FORU DEKRETUA, ekainaren 15koa, honako dekretuak aldatzeko dena: Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretua, eta otsailaren 20ko 6/1990 Foru Dekretua, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araua garatzekoak (2010/06/22ko GAO).*
 - Bere 2. artikulua 11. artikulua gehitzen du eta artikulatua bi kapitulutan zatitzen du: I. kapituluak 1etik 10era bitarteko artikulua hartzen ditu, biak barne, eta II. kapituluak 11. artikulua hartzen du.
- *2016ko irailaren 13ko 23/2016 FORU DEKRETUA, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko 6/1990 eta 6/1999 Foru Dekretuak aldatzen dituen (2016/09/15ko GAO).*
 - Bere 1. artikulua 5. eta 6. artikulua aldatzen ditu.